

**5/2019 TXOSTENA, OTSAILAREN 27KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.**

**GAIA: LAN ETA JUSTIZIA SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA
FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN APIRILAREN 11KO 84/2017
DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.**

I.- AURREKARIAK.

Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jarduketaren eremuak finkatzen dituen) Lan eta Justizia Saila sortu zuen (aurrerantzean, Saila), aipatutako Dekretuaren 16. artikuluko funtzio eta jarduketaren eremuekin.

Azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa betez, onartu egin zen 84/2017 DEKRETUA, APIRILAREN 11KOA, LAN ETA JUSTIZIA SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUENA (aurrerantzean, 84/2017 Dekretua).

Indarrean jarri zenetik ia bi urte igaro diren honetan, Sailak iritzi dio, bere egiturari eragiten dioten hainbat arau indarrean jartzearekin, zenbait funtzio txertatzearekin eta beste batzuk doitu beharrarekin batera, bikoiztasunak saihestuta ere, komenigarria dela 84/2017 Dekretua aldatzea, dekretu-proiektu honetan proposatutakoaren arabera aldatu ere.

Dagokion prozedura hasita, txosten bat eskatu zaio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari Sail berriaren egitura organiko eta funtzionalaren egitura-aldaketa jasotzen duen dekretu-proiektuari buruz, eta izapide hori beteko dugu idatzi honen bidez.

II.- ALDEZ AURREKO KONTSIDERAZIOAK. ESKUMENA.

I.- Txosten hau nahitaez eman beharrekoa da, hala ezarri baitu 27.a)1 artikuluan uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa bera, xedapen orokor batez ari baikara, modu partzialean kontratazio publikoaren eremuan eragiten duena.

II.- Txostenaren irismenari dagokionez, alderdi hauetara mugatuko da: proiektuan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten diotenetara; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumenak kontratazio publikoaren berezko gaiei buruzkoak baino ez dira.

III.- EDUKIA

Dekretu-proiektuak txertatutako aldaketak zazpi alderdi hauei dagozkie, funtsean:

- Doako Laguntza Juridikoaren Aholku Kontseilua desegitea eta Autonomia Erkidegoko Elkarriketa Sozialaren Mahaia gehitzea.
- Sailburuaren funtzio jakin batzuk handitzea.
- Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren funtzioak doitzea.
- Funtzio bat gehitzea Justizia Administrazioako Zuzendaritzari.
- Eraentzako Antolapide Teknikoen funtzioa aipatzea funts aurreratuei lotuta.
- Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkarien bikoiztasun funtzional bat kentzea.
- Lurralde Ordezkaritzen Idazkaritza Nagusiaren aipamena kentzea eta horren ordezkari Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna aipatzea.

Hori guztia zazpi artikulutan bildu da. Testuak, gainera, indarrean jartzeari buruzko azken xedapen bat ere badu.

IV.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK

LEHENA. Proiektuaren lehen artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarriketa Sozialaren Mahaia sartzen du Sailaren egitura organikoan. Ez da kontratuen alorrekoa, baina Batzorde horrek esan behar du lehen artikulua aipatzen duen «84/2017 Dekretuaren 2.2 artikulua e) apartatua» zatiari ezin zaiola idazkera hori eman, ez delako existitzen, eta ez dela egokia apartatu eta letra horrekin gehitzea, 2. artikulua 2. apartatua ez delako existitzen, are gutxiago d) letra bat, haren atzetik e) letra txertatzeko. Ulertu denaren arabera, 3. apartatua (jatorrizko Dekretuaren testuan errepikatuta agertzen dena) da benetan aipatu nahi dena, eta ez 2. apartatua, testuan agertzen den lehen aldian. Horrela zentzua izango luke proposatutakoak.

BIGARRENA. Proiektuaren bigarren artikulua 84/2017 Dekretuaren 3.2 artikulua idazkera aldatzen du, g), h) eta i) letrak gehituta eta letra propioa edo berezia emanda e) eta j) letretako edukiei. Edonola ere, mamiari dagokionez, ez du eraginik kontratuen alorrean.

HIRUGARRENA. Hirugarren artikulua 84/2017 Dekretuaren 10. artikulua aldatzen du, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzari buruzkoa. Zuzendaritza horren funtzioen artean mantentzen du honako hau: «i) Kooperatibak “gizarte-ekimeneko kooperatiba” gisa sailkatzea, apirilaren 4ko 61/2000 Dekretuan xedatutakoaren arabera, bai eta gizarteratzea bultzatzea ere».

Kontratazio publikoarekin duen harremanari dagokionez, txosten honetan Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen –SPKL– berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria aipatu behar dugu (Lege horren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora). Xedapen horren gaia da «Gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuetako kontratu jakin batzuk antolakunde zehatz batzuentzat uztea». Gainera, «erakunde jakin» batzuk «gizarte-ekimeneko» erakundetzat hartzeko betekizunak ezartzen ditu, kontratu publikoak erreserbatzeari dagokionez (funtsean, zerbitzu publikoaren misioa izatea, etekinak berriz inbertitzea, eta erakundea enplegatuen jabetzakoa izatea edo partaidetzaren printzipioetan oinarrituta egotea).

Horrela, xedapen horrek aipatzen duen kontratuen erreserba jaso nahi duten kooperatibek xedapen horrek aipatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte ondore horietarako «gizarte-ekimeneko» erakundetzat hartzeko.

LAUGARRENA. Proiektuak 84/2017 Dekretuaren 12.1 artikuluari j) letra gehitzen dio, Justizia Administrazioako Prebentzio Zerbitzuari buruzkoa, eta aldaketak ez du eraginik kontratazio publikoaren ikuspegitik.

BOSGARRENA. 84/2017 Dekretuaren 12.2 artikuluari d) letra gehitu zaio, eduki honekin:

«d) Zerbitzu zuzendariari kontratazio-arloan dagozkion ahalmenak gorabehera, Eraentzarako Antolapide Teknikoetako, EAT, titularrek eskumena izango dute beren eremuan beharrezkoak diren funtzionamendu-gastuak onartzeko, indarrean den funts aurreratuen araubidearen barruan betiere».

Kontratazioaren ikuspuntutik eragozpenik aurkeztu gabe, errespetatu egiten da kontratazio-organoaren figura (Zerbitzu Zuzendaritza, hari baitagokio Sailaren gastuak baimentzea), eta dagoeneko ezarrita dago printzipio orokor horren salbuespen bat 15. artikulua 1. apartatuaren u) letran. Proposamenaren 12.2 artikuluko d) letraren idazkera bera du, baina Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaritzei erreferentzia eginez. Batzorde honek ez daki gainjartze edo teilakatzerik gerta ote daitekeen Zerbitzu Zuzendaritzaren, Eraentzarako Antolapide Teknikoen eta lurralde-ordezkaritzen artean, maila funtzionalean. Hori gertatzen ez bada, ez dago eragozpenik.

SEIGARRENA. 84/2017 Dekretuaren 15. artikuluko 1. apartatuaren d) letra kentzen da, lurralde-ordezkaritzei eta enplegu-erregulazioko espedientei buruzkoa. Ez dago eragozpenik, ez baitio kontratazio publikoari eragiten.

ZAZPIGARRENA. 84/2017 Dekretuaren 15. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, lurralde-ordezkaritzetako Idazkaritza Nagusiaren ordezkari Administrazio eta Zerbitzuetako arduraduna ipiniz. Ez dago arazorik, ez baitio kontratazio publikoari eragiten.

ZORTZIGARRENA. 84/2017 Dekretuaren aldaketa hau aprobetxatuz, Batzorde honek uste du komenigarria dela jatorrizko bertsioaren idazketa- edo semantika-akats txiki batzuk zuzentzea. Honatx gure proposamena:

Lehena, 5. artikulua k) letran, «administrazio-kontratazioa» terminoaren ordez, «kontratazio publikoa» terminoa ezartzea, hori erabiltzen baita kontratazioari buruzko lege- eta erregelamendu-mailako arau ohikoenetan, eta batik bat berrienetan (denen erakusgarri, SPKL). Horrela, «kontratazio publikoaz» edo «sektore publikoaren kontratazioaz» hitz egiten da, eta «administrazio-» terminoa «pribatu» terminoarekin kontrajartzen da, «sektore publikoko kontratuen» barruan.

Bigarrenik, 84/2017 Dekretuaren 6. artikuluko 4. apartatuan, gomendatzen dugu «bitarteko propioa eta zerbitzu tekniko» terminoaren ordez «bitarteko propio pertsonifikatua» esapidea erabiltzea, SPKLrekin bat etorritik horretan ere.

Azkenik, 13. artikuluan, «Bulego Judizial eta Fiskala Modernizatzeko Zuzendaritza», f) letran esaten da Zuzendaritza horren egitekoen artean dagoela «Justizia Administrazioaren eremuko kontratazio-organoari dagozkion laguntza teknikoko eta materialeko egitekoak betetzea». Gomendatzen dugu «dagozkion» kentzea, ez baitagozkio kontratazio-organoari; aitzitik, hari laguntzeko neurriak dira.

V.- ONDORIOAK

Azaldutako oharrak kontuan hartuta, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 84/2017 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari.